



MANU OLANO

**«Konfidantza,
pasioa eta
elkarlana
lehenesten
ditut»**

Ikasleen txokoa DBHO 2koen agurra
Zertan gabilta '3 Mariak' eta hamaika irakurle



jakintzaikastola

agenda

APIRILA

HAUR HEZKUNTZA

5 urte: Ekogunera

MAIATZA

HAUR HEZKUNTZA

Lanbidekoen antzerki emanaldia
Liburuaren eguna, ipuin kontaketak
Udaberriko jaialdia
Irteerak:

2 urte: Baliarrainera

3 urte: Abaltzisketara

4 eta 5 urte: Oriora

LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntza osoa Dar-dar
LH1: Oiangura eta Gernikako Basondora
LH2: Oiangura eta Gernikako Basondora
LH4: Otegizabal baserrira
LH5: Arrasate-Master Chef
Oiangura
Irakurketa martxa
LH6: Oiangura
Irakurketa martxa.

DBH

Maila guztiak: Giza eskubideak lantzen.
Irakurketa martxa

DBH 4: Zuhaitzikoei aurkezpena
Ampon proiektuaren aurkezpena

EKAINA

HAUR HEZKUNTZA

5 urte: San Inaziora bisitan

LEHEN HEZKUNTZA

LH 3 eta 4: Sastarrainera
LH5 eta 6: Zuatzara

DBH

Etapa osoa, Dar-dar
DBH 1: Vilañanera
DBH 2: Txindokiko Itzala parkera
Otsagabiara
DBH 3: Tolosan piraguismoa eta orientazioa
Frantsesekoak Hendaiara
DBH 4: Irakurketa tertulia Zuhaitzikoein
Ordizia Kolorekoekin
Tolosara txirinduz, piraguismoa eta orientazioa
Oiangura
Frantsesekoek irteera Hendaiara

EKAINA

OROKORRA

Ikastolaren eguna
Arantxa Urretabizkaiarekin solasaldia

AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria



Zaharberritzen

Badirudi gaur egungo gizarteak berrikuntza duela ardatz. Denbora oso azkar doa, eta eguneratu eta egokitzerako berriro ere martxan jarri beharrea aurkitzen gara eta etengabeko bihurtzen da ikastea, egokitzea. Eta erantsi, etengabeko horren helburu edo helmuga ezezaguna dela, gizartea norantz doan eta nora heltzea lortuko dugun ez baitakigu gaur egun. Hau da hau ziurgabetasuna!

Bestalde, oso argi eta ziur dakigu zein den ziurgabetasunerako bidean landu beharreko giltzarria: **pertsona**. Alde horretatik, berriro baino, aspaldiko balore batzuetara bueltatu beharrea gaude, non pertsona izanda ardatz, komunitateak eta berarekiko **ardurak, konpromisoak** eta

partaidetzak berehalako garrantzia hartzen duen.

Atzera begira baino aurrera begira jarri behar garen honetan, gure txiki eta ez hain txikiak ere **erabakiak hartzeko** egoeratan trebatu behar ditugu, eta baita erabaki oker batzuk hartzeko egoeretan ere zenbaitetan. Aurrera egiteko batzuetan atzera jo behar da eta akatsetatik ere ikas daitekeela ikusarazi behar diegu. Bizitza ez da beti lineala, ez doa beti erritmo berean, nahiz eta denborak beti aurrera egiten duen etenik gabe.

Berrikuntzaren bidean, akatsetatik eta esperientzietatik abiatu eta oinarriko baloreei eustea komeni zaigu, eguneroko estres eta arrapaladan etorkizunak eskuetatik ihes egin ez diezagun.

Irailean noiz?

Ikasturtea amaitu ezinik gauden honetan, datorrenaren hasiera data ia lotuta dauzkagu. Gure webgunean urteko egutegia argitaratuko dugu, eta lasai egon, irailan ere gogoraziko dizuegu eta!

ETAPA	DATAK	ORDUTEGIA
Haur Hezkuntza	Irailaren 7tik 22ra Irailaren 25etik aurrera	09:00etatik 12:30era Goiz eta arratsalde
Lehen Hezkuntza	Irailaren 7tik 22ra Irailaren 25etik aurrera	09:00etatik 12:30era Goiz eta arratsalde
DBH	Irailaren 7an Irailaren 8tik 22ra Irailaren 25etik aurrera	Aurkezpena 11:00etan 08:30etik 14:30era Goiz eta arratsalde
DBHO	Irailaren 8an Irailaren 11tik aurrera	Aurkezpena 11:00etan Ordutegi arrunta

RENOVANDO. La sociedad actual gira entorno a la innovación, y el tiempo corre tan deprisa, que convierte el día a día en un constante aprendizaje. El hecho de no conocer el objetivo final nos llena de incertidumbre. Por todo ello, debemos centrarnos en la persona, y recuperar valores como la responsabilidad, el compromiso y la participación. Debemos educar a nuestros alumnos para la toma de decisiones, hacerles ver que de los errores se aprende, que la vida tiene altibajos. Debemos afrontar el futuro bajo esas premisas, siendo conscientes que la innovación es el camino. **CALENDARIO DE SEPTIEMBRE.** No falta nada para que finalice este curso 2016-2017, y ya tenemos entre manos el calendario de arranque para el nuevo curso. En breve lo publicaremos en la web de la ikastola.

DBHO 2koen agurra

Iritsi da elkarrekin hasiera emandako bideari amaiera emateko unea. Bizipenak ugariak izan dira, irribarreak, negarrak, jolasak... Eskerrak ematea besterik ez dugu 15 urtean zehar gure bizitzaren partaide izan eta zuenaren zati izaten utzi diguzuen guztioi. Eskerrak eman elkarrekin ikasitako guztiagatik, urte hauetan eskainitako laguntzagatik.

Oroimenean ditugu elkarrekin entzundako hiru txerri txoen abenturak, txanogorritxo eta amonaren gertaerak. Ederki gogoratzen ditugu elkarrekin eginiko

lehen eragiketak. Barrea eragiten digu

oporretatik bueltan klaseko lehen eguneko kasketetan edo udan

izaten genituen abenturen berri ematen genuen momentuetan pentsatzen dugunean. Nola ahaztu *ikastola handira* eginiko lehen bisita, *handiekin* elkarbanatutako atsedenaldiak eta kidetuta egiten genituen ekintzak.

Hamabost urte hauetan gure bigarren etxea izan dena alde batera uzteko momentua da. Elkarrengandik urrunduta bide berri bati ekiteko unea da. Eskerrik asko irakasle guztiei, ondorengo esperientziarako prest uzteagatik. Faltan izango ditugu laborategian eragindako suteak, Historiako orduan egindako simulakroa, klase tarteetako –edo klaseetako– mus partidak, Kororekin ikasitako abesti ezagunak eta praktiketako mutil sexyak. Aipatu beharrekoak dira Jakintza Ikastolako *Jainkoak* irakatsitako filosofoen pentsamenduak, azterketetan inspirazioa galtzen laguntzen duten txiste txarrak, *vocabulary* ikasteko abestiak, Fisikako *salvame deluxe* saioak, Kimikako futbol partidak, eta nola ez, Ainhoarekin euskal alfabetoko hizki bakoitzarekin abestutako kantak eta gaztelarako solasaldiak. Eta Josune, barkatu gurekin pasatuko estualdiengatik.

Ezin gara gure umore aldaketak jasan dituztenez ahaztu. Eskerrak eman gurasoei, presiopean egon garen uneetan laguntza eskaintzeagatik. Eskerrik asko bide honen partaide izan zareten guztioi, agurra zaila izan arren bide berri bati hasiera ematea tokatzen zaigu.

Besterik gabe zorte on abentura berri honetan!

Maria, Elena, Inge, Leire eta Paula



*Eguna izan arren
pixka bat melankoliko,
mesedez ez dadila
inor malkoetan ito.
Nahiz jakin ez ginela
hemen egongo betiko,
gure laguntasuna
ziur ez da inoiz hilko.*

DESPEDIDA DE LOS ALUMNOS DE BACHILLERATO. Hemos llegado al final del camino que iniciamos juntos hace 15 años y que ha estado lleno de vivencias: risas, llantos, juegos.. Sólo falta dar las gracias a todos los que habéis compartido este camino con nosotros, por todo lo que hemos aprendido juntos y por la ayuda que nos habéis prestado. Nos quedan para el recuerdo los cuentos de los *Tres Cerditos* o de *Caperucita*. No olvidaremos las primeras operaciones matemáticas. Nos reimos al recordar las rabiets de los primeros días tras la vuelta de vacaciones y las aventuras que nos contábamos. ¡Cómo olvidar la primera visita que hicimos a la «ikastola grande» y las actividades que compartíamos con los mayores!. Ha llegado la hora de dejar a un lado la que durante estos 15 años ha sido nuestra segunda casa y de iniciar nuestros caminos por separado. Gracias a todos los profesores por prepararnos para esta nueva experiencia. Echaremos de menos los incendios del laboratorio, el simulacro de la clase de Historia, las partidas de mus, las canciones que aprendimos con Koro y con Ainhoa, los chicos sexys de prácticas, la filosofía de *Jainkoa*. Josune, perdona los malos ratos que te hicimos pasar. Y no podemos olvidar a nuestros padres, que nos han ayudado tanto. Gracias a todos. La despedida es difícil, pero empezamos una nueva etapa. ¡Suerte!

«ZORIONTSUA IZAN NAIZ, GUSTURA EGIN DUT EGINDAKOA»

Jakintza Ikastolan egin dituen 39 urteei errepasso egin die Manu Olanok elkarrizketa luze eta zabal honetan. Aho bizarrik gabe hitz egin du, sentitzen eta pentsatzen duena esanez. Partaidetzan, konpromisoan eta talde lanean ikusten du Ikastolaren izatearen gakoa, eta argi du etorkizuna ekintzaile eta berritzaile ikuspegitik landu beharra dagoela.



Zeintzuk izan dira Manu urte hauetan guztietan transmititu nahi izan dituzun balioak?

Nik hasteko balore bezala kontsideratzen dut Jakintzaren proiektuarekiko identifikazioa eta konpromisoa. Ikastola herriak sortu zuen, herriarentzat, eta hor gaudelarik, guk atera behar dugu aurrera. Hori batetik. Beste balio bat agian partaidetza izan daiteke, komunitateko partaide izatearen garrantzia, pertsona ezberdinen arteko elkarlana eta horrek suposatzen duen aberastasuna. Hirugarren bat aipatzeagatik, arduratsua izatearena eta ekintzaile izatearena. Sortzen diren egoerei aurrez aurre begiratzea, aztertzea eta erabakiak hartzea. Eta gero, ez dakit

hala den ala ez den, lan giro atsegin, egokia eta emankorra bilatzea.

Zer egitea izan da gehien gustatu izan zaizuna?

Gehien gustatu izan zaidana da aukera izan dudala Jakintzaren lorpenak bizitzeko eta gozatzeko. Ederra izan da ikustea nola lortu diren aurrez finkatutako helburu batzuk. Ederra izan da baita ere ikustea lorpen horietan elkarlana oso aberatsa izan dela. Denok norabide berean arraun egitea. Hori urte askoan ikusi dut, eta beti esan izan dut urte hauetan guztietan oso gertu sentitu izan dudala taldearen babesa eta taldearen epela. Irakasle bezala, berriz, pentsatzen dut oso garrantzitsua dela irakasle izatea, nahi

edo ez nahi, haurren eta gazteengan eragin egiten baitugu. Irakasle bezala pasio handiz bizi izan dut nire zeregina, beste kontu bat da ikasleek horrela ikusi ote duten. Hori beraiei galdetu behar.

Eta gutxiena?

Zuzendaritzak badauka berarekin arlo burokratiko bat ekintzatik eta sormenetik oso urruti dagoena, eta hori izan daiteke beharbada. Eta zuzendari egin nituen 25 urteetan ere tokatu dira oso momentu gogorak, eta momentu horiek kudeatzea ez da lanik samurrena.

Ikastolara sartu zinenetik gaur arte asko aldatuko ziren gauzak.

LAU HAMARKADA IKASTOLARI ESKAINIA

Manu Olanok ia 40 urteko ibilbidea osatu du Jakintza Ikastolan, horietatik 25 zuzendari lanetan. Bukatzearen ikasturtea izango du azkena. Aro baten bukaeraren eta berri baten hasieraren atarian dago. Bi sentipen kontrajarri ditu: poza batetik, urte hauetan guztietan Jakintzan egoteko aukera izan duelako, eta «tristura puntu bat» ere bai.

Ikastolan andereño aritzen zen Izeba Faustiren bidez iritsi zen Manu Jakintzara: «Hark planteatu zidan. Oraindik soldadu negoen Madrilen, eta esan zidan ea Jakintzako irakasle izan nahi ote nuen, eta sekulako ilusioa egin zidan». Magisteritza titulua eskuan zuen ordurako Manuk.

Soldadutzatik etorri eta Jakintzan hastea, hori izan zen «lurreratzea», 1977-78 ikasturtea hasita zegoela. Belen Maiza zen orduan Ikastolako zuzendaria, eta Eusebio Iziar zena guraso juntako lehendakaria. «Biekin egin nuen lehen bilera. Oraindik akordatzen naiz nolakoa zen bulego hura, mahai handi bat han

bueltan... Ez nago ziur, baina urte bat edo biren bueltan Jose Migel Amundarain jarri zen zuzendari».

Iribarre txikiarekin oroitzen ditu Manuk hasierako urte haiek. «Gogoratzen naiz 3. mailako talde batekin hasi nintzela. Oraindik ikasleak gogoan dauzkat». Gero, beste lau edo bost urtez 5. eta 6. mailan eman zituen eskolak. Eta ondoren, –orduan 7. eta 8. mailak zeuden– Lengua Castellana ematea «tokatu» zitzaion urte batean edo bestean. «Ez pentsa, nire buruari esaten diot ea zer arraio irakatsi ote nien nik ikasle horiei! Egia izango da ikasleek irakasleak irakatsitakoaz gain ikasten dutela».

Zuzendaritzako 25 urteko aro luzea etorri zen gero, harik eta 2013. urtean Amaia Ayerrari lekukoa eman zion arte. Behin zuzendaritza utzita, EKI proiektuaren barnean matematika lantzen aritu da DBHn, eta arratsaldeko proiektu desberdinak gidatzen ere aritu da. Gero arte esateko garaia iritsi zaio orain. Bejondeiala Manu!

Zeintzuk dira zure ustez azken hiru-lau hamarkadetan ikastolaren bilakaera markatu duten mugarririk?

Ni ikastolara sartu nintzenerako ikastola sendoa zen, proiektu bizi eta kontsolidatua zen. Mugari bat berehala tokatu zitzaiguna 1993ko Euskal Eskolaren Legea izan zen. Askok sufritu genuen garai hartan. Mugari berriak aipatzekotan, zailtasun haiei aurre egiteko, oso garrantzitsua izan zen abian jarri zen eleaniztasun proiektua, ilusio eta berrikuntza handia ekarri zuena. Beste bat, Batxillergoia berriro ezartzea, Kilometroak 93 antolatzea, kooperatiba bihurtzea...

Eta ondoren?

Ondoren etorri ziren Kalitatearen Sariak, Ikastolari prestigioa eman ziotenak. Eta gero, handik aurrera, agian ez horren mugari garbiak, baina berrikuntza pedagogikoak aipatu behar dira; besteak beste IKTen garapena eta erabilpena, ikasle kompetentiek egitearena, adimen guztiak kontuan izatearena, aniztasunari behar den bezala erantzutea...

Zenbat aldatu dira gauzak zuri hasi zinetik hona?

Gauzak aldatu direla nabarmena da. Zergatik? Gizartea asko aldatu delako, eta gizartea aldatzen bada eta gu ez bagara aldatzen, ba, ia gauzak ez doaz ondo. Gizartea aldatu den heinean guk gauzak egokitu beharra, gauza berrien bila joan beharra, hori etengabea izan da, legeak ere aldatuz joan dira... Hori beti oso presente eduki beharreko zerbait da. Batzuetan kostatu egiten zaigu mugitzea, makal mugitzen garelako edo asko garelako.

Gaur egun begiratutik, zertaz zaude harroen, hitzaren zentzu onean? Zer lorpen nabarmendu nahi zenuke?

Bakarren batek agian pentsatzen du izugarria dela 25 urtez zuzendari izatea, eta sekulako ahalegina izan dela, baina nik ez dut horrela bizi izan, eta hala esango dut. Ardura hori hartzea eskaini zidatenean, poliki-poliki gauzak ikasiz joan nintzen, eta zortea izan dut, gehienetan, Zuzendaritza Talde sendoa alboan izatea eta nola ez, lankide guztien elkarlana oso gertu sentitzea. Beraz, ez nago horretaz harro. Iruditzen zait gauza natural bat egin dudala, alegia, zegokiona. Bai esango nuke salatu naizela, baita ere esango nuke denekin ez nuela

asmatuko, pertsona bati baino gehiagori kale egingo niola...

Eta herrenen bat aipatzekotan. Zer da zure ustez egin gabe utzi duzuna?

Egin gabe utzi edo hobeto zer egin zitekeen galdetuz gero, ziur hainbat gauza aipatu litezkeela. Gure ikastolan koordinazioari garrantzia handia ematen zaio. Maila, zikloa, etapa. Halere batzuetan iruditzen zait ikastolako ikuspegi orokorra ez dugula kontuan hartzen. Gure koordinazioa maila edo zikloan amaitzen dela. Ez dugula behar beste lotzen beste zikloekin, beste etapekin. Sarritan pentsatzen dut hori aurreikusitako behar nuela eta nire hutsune bezala kontsideratzen dut.

Gaur egun nola ikusten duzu ikastola? 50 urte betetzera ere badoa...

Ikastolari ikusten dizkiot alde sendoak eta hobetu beharrekoak. Alde sendo bat ikastola erdua bera aipatuko nuke. Horren atzean dagoena oso-oso interesgarria, erakargarria, aberatsa eta baliagarria da Euskal Herriarentzat. Irakasleria iraunkorrek, lehentasunak ondo finkatuta dituenak. Berrikuntza

pedagogia arloan eragin egin nahi du, eta benetan nahi direnean eta sinisten denean, gauzak lortzen dira. Beraz, baditu ezaugarri oso onak.

Eta hobetzeko zer ikusten duzu?

Bat, eta nabarmen gainera, partaidetza. Eta horri lotuta, proiektuarekiko inplikazioa. Partaidetza, bai lankideen aldetik eta baita gurasoen partetik ere. Hor kezkatzeko zantzuak badaude nire ustez. Beste bat hobetzeko talde lana da. Talde lanean etengabe dihardugu, bai ikasleekin eta baita lankideen artean ere, baina hobetzeko atalak dauzkagu hor; modu eraikitzailean eta positiboan jardutea, elkarri lagunduz eta elkarrengandik ikasiz. Azkenik, berrikuntza pedagogikoan, azken aldiari eman ditugu urrats esanguratsuak —ebaluazio formatiboa, portfolioa...—. Kontua da, batzutan urrats bat aurrera ematen dugula, eta zalantza edo beldurra sartzen zaigula, eta kapaz garela aurrera emandako urrats hori atzera emateko. Dena ez da ondo aterako baina aurrera egin behar dela uste dut.

Zaila al da gaur egun irakasleen zeregina?

Irakasleen zeregina oso garrantzitsua da nire ustez, Errealitatea da gauzak aldatu direla eta gaur egun gizartean, komunikabideetan, leku askotan aipatzen da zalantzan dagoela irakaslearen autoritatea, errespetua... Eta nik ez dut uste irakaslearen autoritatea denik gakoa. Nik konfidantza, pasioa eta elkarlana lehenesten ditut autoritatearen gainetik. Ikusten duzunean ikasleengana iristen zarela, motibatzen direla... hori sekulako lorpena kontsideratzen dut.

Zeintzuk dira etorkizun hurbilari begira ikastolaren erronkak?

Hiru erronka nagusi aipatuko nituzke. Lehena, partaidetza. Lehen ere esan dut ez dudala uste unerik onenean gaudenik eremu honi dagokionez. *Confort* egoeraren antzeko zerbaitean gaudela esango nuke, eta nahiago nuke oker banengo. Bigarrena,

euskara eta euskal kulturaren taupada. Guk oso erraz esaten dugu Jakintza Ikastola euskaraz bizi den komunitatea dela, eta nik esango nuke neurri handi batean baietz, baina beti ez. Eta galdetzen dut: Zergatik? Hor autokritika egin behar da eta etorkizun hobe eraikitzea gure esku ere badago, batez ere guraso eta irakasleen esku. Eta hirugarrena, berrikuntza. Jakintza Ikastolak, beste guztiak bezala, oso adi egon beharko du, ezingo da lasai egon eta autokonplazientzian erori. Beti jardun beharko du berrikuntzaren bila —ez obsesiboki, baina beti kezka buruan—, eta bereziki berrikuntza pedagogikoaren bila.

«**Jakintzaren lorpenak bizitzeko eta gozatzeko aukera izango dut. Ederra izan da ikustea nola lortu diren aurrez finkatutako helburu batzuk. Elkarlana ere aberatsa izan da**»

Datorren ikasturtean 50. urteurrenean murgilduko da Ikastola? Zer aurreratu dezakezu?

Datorren ikasturtean 50 urte betetzen ditu Jakintza Ikastolak, eta nola ez ba, behar den bezala ospatu beharko dugu. Iazko urrian hasi ginen prestakuntza lanak egiten, eta bi lantalde handi sortu dira: horietako bat, 50 urteko ibilbidea testigantza jasoko lukeen liburu bat eta DVD bat prestatzen ari da, eta bestea, datorren ikasturteko ekitaldi guztiak antolatzen ari da. Bi lantaldeak lanean ari dira. Liburuaren eta DVDaren zati batzuk aurreratuta daude, eta ekitaldien lantaldea ere maiz bildu da, ekintza garrantzitsuenak zehaztuta daude dagoeneko. Finantzazioari begira Ordiziako jaietan taberna bat ere

antolatu nahi da, eta aukera polita izan daiteke lehen aipatutako partaidetza hori indartzeko.

Sorrerako balio horiek oraindik ere indarrean daudela uste al duzu?

Seguru nago aurrez aipatu ditudan hiru erronkak, neurri handi batean, orain dela 50 urte ikastolako sortzaileek zituzten kezka berberak direla. Egunerokotasun handia daukate gaur egun ere garai hartako helburuek.

Zer da eta zer izan da zuretzat Jakintza Ikastola?

Lantoki bat baino askoz ere gehiago. Zorte handia izan dut nire ekarpena, nire lana, nire aletxo erabat identifikatzen naizen proiektu batean egiteko. Hori hasteko. Bigarrenik esango nuke asko ikasi dudala ikastolen eremuan, Ikastolen Elkarteko guneetan, baita ere Berritzeguneetan, eta nola ez, Jakintzako lankide, guraso eta ikasleekin. Elkarlana aberatsa izan da niretzat. Badakit elkarlanak konfidantza eta dedikazio handia eskatzen duela. Jakintza Ikastolak aukera asko eskaintzen ditu horretarako, bai gela barruan eta gelatik at ere bai. Inplikatzeko mila aukera badaude. Nik pentsatzen dut hori dela bidea. Azkenik, esango nuke zoriontsu izan naizela Jakintzan, oso gustura egin dudala urte hauetan guztietan egin dudana.

Orain erretiroa hartzera zoaz, jubilatzen zoaz. Zein sentipen dituzu?

Erretiroa hitza ez zait gehiegi gustatzen, eta jubilatzea ere ez. Etapa bat amaitzen da, horretaz kontziente naiz. Aitortu beharra daukat ez daukadala pentsatuta etorkizunean zer egin behar dudana. Ideia batzuk badituz, baina oraindik ez daukat zehaztuta. Datorren ikasturtean, eta ikastolak nahi badu behintzat, 50. urteurrenaren harira nire aletxo jarriko dut. Bi sentimendu argi dauzkat: alde batetik, lasai nago, gustura nago, zorte hori dena izan dudalako, baina ezin dut ukatu tristura puntu bat ere badaukadala.



Goiko irudian, Manu DBH2ko ikasle talde batekin Usurben. Argazki nagusian, DBH2ko talde osoarekin, Larraitzen.

Manu Olano, cuatro décadas dedicadas a la ikastola

Después de 40 años como profesor en Jakintza, 25 de ellos como director, este es el último curso para Manu Olano. Manu llegó en el curso 1977-78 por mediación de su tía Fausti, también andereño de la ikastola, con el título de Magisterio y la mili recién acabada. Belen Maiza era la directora y Eusebio Iziar el presidente de la junta de padres. Empezó con un grupo de tercer curso, y todavía se acuerda de sus primeros alumnos. Luego dio clase en 5º y 6º y algún año «le tocó» impartir Lengua castellana. Más tarde llegó el periodo de 25 años como director, hasta que en 2013 le pasó el relevo a Amaia Ayerra. En esta última etapa ha impartido matemáticas en la ESO, además de trabajar en diversos proyectos de la misma etapa. **Ahora le ha llegado la hora de decir 'hasta luego'.**

Durante todos estos años Manu ha querido **transmitir ciertos valores, como la identificación y compromiso con el proyecto de la ikastola**, la participación, ser responsable y emprendedor y buscar un ambiente de trabajo agradable, adecuado y productivo. Entre los aspectos que más le han gustado de su trabajo destaca haber tenido la oportunidad de vivir y disfrutar de los logros de la ikastola y el trabajo en equipo. El apoyo y calor de ese grupo han sido también importantes para él, al igual que la pasión con la que ha desarrollado su labor como profesor. Por el contrario, lo que menos le ha gustado ha sido la labor burocrática que conlleva la dirección y algún que otro momento duro que le ha tocado lidiar.

Cuando Manu llegó, el proyecto de la ikastola estaba muy consolidado, pero según él, **varios hitos han marcado su desarrollo posterior**: la Ley de la Escuela Vasca de 1993, el proyecto del plurilingüismo, la reimplantación del Bachillerato, la organización de Kilometroak 93, la conversión en cooperativa, los premios Q de calidad, la renovación pedagógica, el desarrollo de las TIC... Todo ello es reflejo de los cambios y la evolución sufridos en la sociedad y, en consecuencia, en la misma ikastola. Manu considera que a día de hoy Jakintza es un centro escolar con una organización y estructura sólidas, con un profesorado estable y con unas prioridades bien definidas, pero cree que podría mejorarse la participación y la implicación en el proyecto, tanto por parte de los trabajadores como de los padres. **También piensa que se puede mejorar y consolidar la innovación pedagógica.**

Manu ha sido director durante 25 años y de ese trabajo destaca el equipo directivo que ha tenido al lado y su colaboración. También ha sido profesor y considera que la labor de este colectivo es muy importante, aunque últimamente se ha puesto en duda su autoridad y respeto. Pero Manu antepone la confianza, la pasión y el trabajo en equipo a esa autoridad y respeto.

Al hablar del futuro de la ikastola, **Manu enumera tres grandes retos: la participación, el latido del euskara y la cultura vasca y la innovación.** En un futuro más cercano, el año que viene, menciona la celebración del 50 aniversario de Jakintza, en cuya organización está implicado y continuará trabajando a pesar de su jubilación, una palabra, por cierto, que no le gusta. Sobre el aniversario Manu adelanta que se han creado dos grupos de trabajo: uno de ellos se encarga de la elaboración de un libro y un DVD que repasa la historia del centro y el otro trabaja en la organización de los actos conmemorativos. Para su financiación se va a instalar una chozna en fiestas de Ordizia.

Antes de finalizar y despedirse, Manu comenta que la ikastola ha sido mucho más que su lugar de trabajo y que ha sido feliz en él, además de haber tenido la suerte de participar en un proyecto con el que se ha sentido plenamente identificado.

Ahora afronta una nueva etapa con tranquilidad pero, al mismo tiempo, con algo de tristeza.

II. IRAKURKETA MARTXA: '3 MARIK' ETA HAMAIIKA IRAKURLE!

laz hasi genuen ekimenari, nola ez, jarraipena eman diogu. Irakurketa Martxaren bigarren aldi honetan Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* eleberria irakurri dugu ikasle, guraso, irakasle eta ikastolako langileen artean. Goizeko hamaiketan hasi eta arratsaldeko bostak aldean iritsi ginen azken orrira. Arantxak berak eman zion hasiera martxari. A zer nolako ohorea! Amaieran, berriz, nobelaren gai nagusia zahartzaroa edo zahartzaroa bizitzeko modu desberdinak direla aintzat harturik, *Hiru Maria* izan genituen gure artean: Bixen Mujika eta Lurdes Olazabal irakasle ohiak, eta Belen Balerdi Kimetzeko kidea. Horiekin batera gure aitona-amona guztiak ere omendu nahi izan ditugu, hainbeste merezi dute eta! Ekimen eder hau biribiltzeko liburua irakurri dugunok Arantxa Urretabizkaiarekin bildu gara solasalditxo izateko! Jarrai dezagun literatura goxatzen eta literaturaz gozatzen!



IDAZLE TREBEAK JAKINTZAN

Arrazoi asko ditugu izenburuko aipua egiteko. Alde batetik, Beasaingo idazlehiaketa, bestetik, Urruzuno lehiaketa, eta azkenik Ordiziako Udalak antolatzen duen komiki lehiaketa. Gure ikasleek parte hartu dute lehiaketa horietan eta ezagutu berri ditugu eskuratu dituzten sariak.

- **Beasaingo lehiaketan** sariak eskuratu dituzte Irati Jauregik, Ibone Aiestaranek, Uxue Iruretagoenak, Eusko Garciak eta Maddi Blankok.
- **Ordiziako komiki lehiaketan**, berriz, Izaro Nietok eta Leire Herzogek lortu dituzte sariak.
- **Urruzuno lehiaketan** Iratxe Garmendia izan da saritua.

Zorionak saridunei eta nola ez parte hartu zuten guztiei!



– Alumnos, padres y madres, profesores y trabajadores de la ikastola hemos leído el libro *3 Mariak* de Arantxa Urretabizkaia en la segunda **Marcha de lectura**. La misma escritora inauguró a las 11 de la mañana la marcha que acabó a las 5 de la tarde. Dado que la novela gira en torno a las diferentes formas de afrontar la vejez, también participaron las ex-profesoras Bixen Mujika y Lurdes Olazabal y Belen Balerdi de Kimetz. – Varios alumnos de Jakintza han sido **premiados en diferentes concursos literarios**: Irati Jauregi, Ibone Aiestaran, Uxue Iruretagoena, Eusko García y Maddi Blanco en el concurso de redacción de Beasain; Izaro Nieto y Leire Herzog en el concurso de comics de Ordizia; e Iratxe Garmendia en el concurso Urruzuno.

OIANGU

Zuek ba al dakizue zer den ortoargazkia? Eta kate trofikoa? Ba, 5. eta 6. mailako ikasleek oso ondo dakite hitz horien berri.

Izan ere, lehenengo batean, txango oso interesgarria egin zuten Oiangua. Imajinatu gure kideen izenak ahaztu egin zaizkigula eta denei berdin deitzen diegula. Tristeza ezta? Antzeko zerbait egiten dugu zuhaitzekin, denei *arbola* deitzen diegu, nahiz eta bakoitzak bere izena izan. Inguruan ditugu, alboan, ukitzen ditugu, jolasten, hortxe dauzkagu eta ez dakigu nola deitu. Ez dakigu beraien izena.

Arazo hau eta beste hainbat gaiditu nahian, Arantzadi Zientzia Elkartearekin batera, Oiangu aldera abiatu dira gure neska-mutilak.

Lehenengo, Oianguko bidean aurkitu dituzten zuhaitz mota ezberdinei erreparatu diete, nolako enborra, itxura, hostoak, izena... gora iritsi orduko hamaiketako egin dute eta ondoren, orientazio jolasa ortoargazkia eta ipar-orratzaz baliatuz.

Lasai bazkaldu eta gero, Oiangu parkean, kate trofikoa zer



den ulertu eta horren oinarrian aurkitzen diren izaki bizidunak aztertu dituzte. Egun ederra igaro dute eta ez dute berehalakoan ahaztuko.

IKASTOLAREN EGUNA

la beste urte bat joan zaigu. Azkar ezta? Eta zenbat ekintza tarte horretan, zenbat gauza pasatu diren, zenbat jolas, zenbat estualdi. Eta berriro ere, badator Ikastolaren Eguna, Jakintza senidearen eguna, alajaina!

Aurtengoa ere larunbatarekin izan da, hilaren 17an. Izan da zer ospatua eta egitaraua ere maila berekoa osatu dugu.

Goiza, Abesbatza Txikiaren emanaldiarekin hasi dugu. Ondoren, DBHkoek koreografia egin dute, eta bukatu orduko irakasleak agurra dantzatu die DBHkoei. Izan ere, urte askoan elkarrekin aritu ondoren beraien ibilbideak banatzeko ordua iritsi zaie ikasle horiei.

HHkoak kalejiran ibili dira erraldoi eta guzti. Lehen ziklokoak elkarrekin jolasean, bigarren ziklokoak betiko jokoetan eta ginkana ere egin dute hirugarren ziklokoek.

Goizari mahaiaren bueltan eman genion amaiera bazkari eder batekin. Bazkal ondoren, haur jolasak eta dantzaldia ez ziren falta izan.

Baina egun horretako saltsaren osagaiak hauek dira: elkartasuna, giro alai, iritzi trukaketa eta batez ere proiektu eder bati bultzaka ari den talde sendo bat!



– Los alumnos de 5º y 6º de Primaria han participado en una actividad especial en **Oiangu**. Con la ayuda de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en el parque han conocido diferentes especies de árboles y han analizado sus troncos, formas, hojas, nombres... Tras el hamaiketako han participado en un juego de orientación con la ayuda de una ortofotografía y una brújula, y después de comer han aprendido qué es una cadena trófica con todos los seres vivos que la componen. Fue un día inolvidable. – El sábado 17 de junio se celebra una nueva edición del **Día de la Ikastola**. La fiesta comenzó con la actuación del coro txiki y siguió con la coreografía de los de ESO, el baile de despedida que los profesores ofrecieron a los alumnos de ESO, el pasacalles de Infantil, con gigantes incluidos, los juegos del primer y segundo ciclo y la ginkana del tercer ciclo. La mañana acabó con una comida, y en la sobremesa hubo más juegos y baile. La convivencia, el buen ambiente y la gente fueron los protagonistas de este Día de la Ikastola.

DEBATIK ZUMAIARA

Udaberriari ongietorria emateko, egun pasa berezi bat antolatu genuen gure Aste Kultureko egitarauaren barnean: Deba-Zumaia ibilaldia. DBH 3ko ikasleek eta euren tutoreok, kirolaz eta paisaia ederraz gozatzearekin batera, gure arteko harremana sustatzeko aukera paregabea izan genuen.



BASONDON ANIMALIAK IKUSTEN

Kortezubin dago Basondo, Gernikatik gertu dagoen paraje zoragarri batean. Zoologiko itxura badu ere, ez da zoologikoa, mehatzatutako basafaunaren babeslekua baizik.

60.000 metro koadroko belardi zein zelaietan gure inguruko basanimalia nagusiak aurki daitezke: orkatzak, basurdeak, oreinak, azkonarrak, basakatuak... baita harrapariak eta hegaztik migratzaile mota desberdinak ere.

Halaber, gure lurraldean desagertuta dauden, eta hurbil senti ditzakegun beste espezie batzuk ere ikus daitezke bertan; besteak beste, katamotza, otsoa edo bisontea.

Eta hantxe atzera eta aurrera, begiak zabal-zabalik zituztela, animalia guztiak ikusi eta ukitu nahian ibili ziren 1. eta 2. mailako ikasleak. Ze kontatua ekarri zuten etxera!



DARDARARIK GABE

Zu, izaki bitxia zara! Hura, izaki bitxia da! Eta ni? Ni ere, izaki bitxia naiz! Banan-banan, guztiok gara izaki bitxiak.

Dar-Dar Produkzioak taldeko bi lagun gure artean izan ditugu ekain hasieran. Lehen Hezkuntzako ikasleekin eta desberdin izateko eskubidearen inguruko lanketa egin dute elkarrekin.

Bost ipuinen inguruan aritu dira: *Bunyipa*, *Mari Ilargi*, *Julia eta Julio*, *Tximeleta belariak* eta *Bruno ardía*. Bertako pertsonaiak bitxiak dira, ezberdinak...

Gu ere, ezberdinak gara, batzuk altuak, beste baxuak, gizenak, argalak, belarri handiak, txikiak... baina eskubidea dugu ezberdinak izateko eta gainera horrek aberastu egiten gaitu.

Giro lasaian entzun eta aztertu dituzte ipuin horiek. Gure ikasleek bane-banean daramate ez dagoela zertan bitxi izateari uko egin beharrik. Ondokoa den bezalako onartzea dela gure egitekoa; DARDARRIK GABE ELKARREN ARTEKO BEGIRADAK PAREAN JAR DITZAGUN.



– Para dar la bienvenida a la primavera y dentro de la Semana Cultural de Jakintza, los alumnos y tutores de 3º de ESO han realizado la marcha **Deba-Zumaia**, que han aprovechado para disfrutar del deporte, el paisaje y la convivencia. – **Basondo** es un refugio para la fauna salvaje amenazada situado en una parcela de 60.000 metros cuadrados de Kortezubi, al lado de Gernika. Allí pueden verse corzos, jabalíes, ciervos, tejones, gatos montés, aves rapaces y migratorias... También pueden verse otras especies que ya no pueblan nuestras tierras, como lince, lobos o bisontes. Hasta allí fueron de excursión los alumnos de 1º y 2º curso, que no perdieron detalle de los animales – La semana pasada recibimos la visita de dos actores de **Dar-Dar Produkzioak**, que han tratado el tema del derecho a ser diferente con los alumnos de Primaria y Secundaria a través de cinco cuentos: *Bunyipa*, *Mari Ilargi*, *Julia y Julio*, *Orejas de mariposa* y *La oveja Bruno*. Todos somos diferentes: altos, bajos, gordos, flacos, de orejas grandes, de orejas pequeñas... Los alumnos han interiorizado que no hay porqué renunciar a ser «peculiar» y que debemos aceptar al de al lado tal como es.

MILA ESKER BIHOTZEZ MAITE

40 urtez bidelagun izan dugun Maitek, gure lagun eta lankideak, bere bizitzako etapa berri bati hasiera emango dio. 2 urteko gelatik hasi eta 6. mailara arteko ikasle askoren gidari izan da, eta urtero, bere alaitasunaz zipriztindu ditu gure ikastolako gelak. Bere lanerako grinaren sua ez da sekula itzali eta lehenengo eguneko ilusio eta indar berberaz jarraitzen du oraindik ere. Bere ibilbidera batu garen kideok ikaragarritzko zortea izan dugu berarengandik jasotako ezagutza guztiarengatik. Eta ezin dezakegu aipatu gabe utzi bere umiltasuna eta sormena, horrek egiten baitu berezi. Maite, mila esker bihotzez eta zorterik onena.



UZTURRERA

Kultur Astearen ekimenen artean mendi irteerak antolatu ziren. DBH 1ekoek Uzturrera igo ziren eta behin gailurrera iritsita, tokatzen zen argazkia atera zuten. Eguraldia lainotsua egin zuen eta nahiko lan izan zen argazkia ateratzeko. Argazkia atera eta aldapan behera, Izaskuneraino jaitsi ziren. Hemen, lasai bazkaldu eta jolasean aritu ondoren, Tolosako alderdi zaharra bisitatu zuten.



Geroz eta ozenago entzuten dugu espazioaren antolaketa asko baldintzatzen duela ikaskuntza prozesua. Hori dela eta, azken aldian, berrikuntza handiak egiten ari dira han eta hemen. Kontua da DBH 2ko ikasleek Haur Txokoa berritzeko maketa eder bat egin dutela. Alde batetik matematikako ezagutzak behar izan dituzte horretarako, besteak beste, eskala egokia kalkulatzeko, garapen lauek, bolumenak, unitate aldaketak... ezagutu behar dituzte.

Beste alde batetik, elektrizitateko hainbat kontzeptu landu dituzte, bertan zirkuituak serie eta paraleloan jarri, tinbrea, argi iturriak...

Azkenik, adimen plastikoak ere izan du bere lekua; ikus ezazue zeinen dotore gelditu diren maketak! Eta garrantzitsuenak, zeinen gustura jardun duten maketa egiten.

HAUR TXOKOAREN MAKETA BERRIA

– **Gracias Maite.** Nuestra amiga y compañera Maite va a iniciar una nueva etapa en su vida después de 40 años en los que ha sido guía de muchos alumnos desde el aula de 2 años hasta 6º curso y ha contagiado su alegría a toda la ikastola. Su pasión por el trabajo sigue intacta y aun conserva la misma ilusión que el primer día. Los que hemos coincidido en su trayectoria hemos tenido mucha suerte. Su humildad y creatividad también la han hecho especial. Gracias Maite y mucha suerte. – En la Semana Cultural se programaron varias salidas montaÑeras. Los alumnos de 1º de ESO subieron a **Uzturre**, donde sacaron una foto de grupo, aunque al estar nublado resultó algo complicado. Luego descendieron a Izaskun y después de comer visitaron la parte vieja de Tolosa. – Dado que la organización del espacio condiciona el proceso de aprendizaje, se están llevando a cabo cambios aquí y allí. Los alumnos de 1º de ESO han participado con la construcción de una **maqueta para el nuevo Haur Txoko** en la que han aplicado sus conocimientos de matemáticas (escalas, volúmenes, cambios de unidades...) y también de electricidad y de plástica.



1978an jaiotakoak ikastola ondoko zelaietan.

OROITZAPENAK

Bosgarren maila inguruan ateratako argazki honetan gogoan dut uda usainean geletako paretak atzean utzi eta Rosarito andereñoak nola esan zigun: «Goazen ikastola inguruko zelaietan bueltatxo bat ematera!».

Ni ere gogoratzen naiz egun horretaz; udaberriko egun eguzkitxu zoragarri bat zen eta ikastolako pareko zelaia margaritaz josita zegoen. Gu gelan geunden, Rosarito andereño maitearekin, eta bapatean.. a ze sorpresa! «Goazen denok zelaira, argazki bat atera behar dugu», esan zigun gure andereñoak. Denak irrifartsu eta erabat aztoratuta irten ginen korrika eta oihuka mendi aldera. Beste gelako kideak ere bertan zeuden argazkiak ateratzen. Benetan egun aparta izan zen hura!


Izaro Regil eta Aurora Valdivieso

Argazkian azaltzen direnak

Atzetik hasita ezkerretik eskuinera: Josi Carrera, Jaione Aiestaran, Nagore Eskisabel, Rosarito andereñoa, Garikoitz Iztueta, Amaia Sanchez, Unai Soto, Joseba Legarra, Xabier Arsuaga, Oskarbi Perez, Olaia Sainz, Ainhoa Katarain.

Erdian: Veronica Pita, Estitxu De Pedro, Aurora Valdivieso (makurtuta), Nerea Fernandez, Paula Garaialde, Amalur Mateo, Maite Martin.

Aurrean: Ana Barriola, Xabi Risueño, Aitor Ruiz, David Pascual, Ion Mikel Ruano, Eluska Iburguren, Oihana Benito, Oihana Solis, Noemi Otegi.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
Tfnoa. 943 16 05 40
20240 ORDIZIA
www.jakintza.eus
ordizia@ikastola.net

